

GILERMO LARRAÑAGA: BIDE-URRATZAILE

IÑAKI AZKUNE MENDIA

Elhuyar taldeak 1974.urtean bere aldizkariaren lehenengo alea argita ratu zuenean, euskara zientzia eta teknikaren eremutara bideratzeko lehen saio serioa hura zela pentsatu genuen batek baino gehiagok. Eta oker geunden, geroko gertakizunek adierazi zigutenez.

Bagenekien, bai, gerra aurrean hasitako idazleek ("*Orixel*", *Zaitegi*, *Andima Ibiñagabeitia* eta abarrek) jotake lan egin zutela euskal literaturaren soka gerra ondorenean apurtu gabe beste berriago batzuren eskutik (lumatik, hobeto esan) jarrai zedin.

Euskara zientzia eta teknikaren alorrera sartzea ordea, *Gabriel Jauregiren Pisia* eta antzeko libururen bat edo besteren gerra aurreko saioen bidez hasi zen nola edo hala mende honetan. Gerra ondore-

nean berriz, ikastoletako liburugin-tza nahiz *Elhuyar* aldizkariaren sorrerarte guretzat etena nabaria zen, *Gilermo Larrañaga* ezagutu genuen arte.

1974.urtean, Tuteran zegoen *Gilermo* jesuita azkoitiarra eta berehala hartu zuen *Elhuyar* taldearen usaina. Aldizkariaren lehenengo alea eskuratu zueneko, baita argitara genezan artikulu bidali ere Donostia, orduan genuen *Circulo San Ignacio* San Martzial Kaleko egoitzara. *Manod* eta *Grassé*. Hala-beharra eta finalitatea izenburua zuen idazlanak eta aldizkari hasiberriaren bigarren alean eman genuen argitara 1975.urteko Martxoan.

Urte hartan ala hurrengoan ordea, bilera genuen egun batez han agertu zitzaigun *Gilermo Larrañaga* bera San Martzial Kaleko egoitza-

ra, gu ezagutu nahi gintuela eta hitzaspertu bat egitekotan.

Gizon sendoa zen azkoitiarra itxuraz. Hirurogeitamar urte bazi-tuen eta osasunez ondo ez zebilela aitortu zigun. Guk gure lan eta as-meen berri eman genion. Berak be-rriz, urte asko eta latzetan zehar txindurriaren gisa burutu zuen lan eskerga; euskara zientzia eta tek-nika-sailetara abiatzeko atera zi-tuen izerdien fruitu mardula. Gure berriak jaso eta bere lana eskaini zigurean, *Lizardik* idatzitako "... Ene asaben lokarri zaarra, Yauna-ri zor, etzan eten!" delako haren antzeko zerbait zuela gogoan esan-go nuke.

Harrez gero, *Tuteran* jesuiten Eskola Profesionalera geuk ere egin genion ikustalditxoia 1977.urtean. Osasunez motelagoa ikusi genuen. Brrua ez zitzaion behar bezala odo leztatzen eta haren hitzaldiak hñ-tsuneak ere bazituen. Dena dela, oso pozik zegoen *Elhuyar* aldizka-riak zeraman bidez ikusita. Bertako idazleren bat edo beste oso go-goko zuela ere aitortu zigun.

Geroztik, ez genuen haren berri rik izan 1978.urtean heriotz-albis-tea heldu zitzaigun arte.

Zein genuen ordea etengabe eus-kara teknikoari hainbat ordu eta ahalegin eskaini zion gizona?

Gilermo Larrañaga, *Azkoitian* mun-duratu zen 1905.urteko Urriaren lan-nan. Gazterik hasi zen euskaraz idazten. 1921.urtean "*Lenengo kere-xalia*" idazlana argitaratu zuen "*Euzko Deya*"n. Urte horretantxe sar-tu zen jesuita Loiolako ikastetxera, eta han ezagutu zituen *Zaitegi*, *Pla-zido Mujika*, *Lauaxeta*, *Orixe*, *Andima Ibiñagabeitia* eta euskal letrai era-gin nabarmena emango zien beste zenbait euskaltzale. *Andima*, besteak beste, lagun handia zuen.



Talde hartako zenbaitek ordea, Jesusen Konpainian ez bide zuen giro egokirik aurkitzen eta utzi egin zuen Loiola, *Orixe*, *Lauaxeta*, *Andima* eta *Zaitegi* adibidez, ez ziren jesuiten baitan jarraitu. *Gilermo Larrañaga* bai ordea, eta Oñan osatu zituen bere ikasketak.

Gerra zela eta, Ameriketara bidali zuten beste hainbat elizgizon euskaltzaleren antzera, *Caracas*-en, irakasle izan zen eta ez zion euskaraz idazteari utzi. *Zaitegi*-k sor-tutako "*Euzko Gogoa*" izeneko aldizka-rian artikulu ugari argitaratu zuen 1956.urteetik 1959.erarte. Inoiz "A" eta "Azkoiti" ezizenak ere era-bili zituen.

Gero, *Marneffe* (Belgika), *Bilbo*, *Las Palmas* eta azkenean (eta bat-tez ere) *Tuteran* igaro zituen ur-teak irakasle lanetan. Isilean eta atertu gabe aritu zen euskara zien-tzia eta teknikaren mundura egoki-tzen urte latz haietan.

1970.urtean hain estimatua zuen "*Andima Ibiñagabeitia*" izeneko sa-ria irabazi zuen bere "*Landare ja-kintza*. *Botanika*" lanaz. *Kardabe-raz* bazkunak argitaratu zuen gero liburu hau 1975.urtean.

Horretaz gainera, argitaratu ga-be dauden ondoko liburu hauek ere bereak ditu:

- **Mekanika. Profesino-eskoletarako. Lehen partea.** 1958. E.P.S.-tik itzulia. 200 orrialde.
- **Teknologia mekanika. Bigarren partea.** E.P.S.-tik itzulia. 138 orrialde.
- **Kimika.** Eduardo Vitoria-erenetik itzulia. 185.orrialde.
- **Fisika.** Kleiber-erenetik itzulia. 307 orrialde.
- **Nekazaritza.** 132 orrialde.
- **Gizarte-bizitza.** 4.EGB-rako. 1972 S.M.-tik itzulia. 128 orrialde.
- **Izadi-jakintza.** 6.EGB-rako. 152 orrialde.
- **Izadi-arloa.** 4.EGB-rako.S.M.-tik itzulia. 128 orrialde.
- **Zoologia.** 96 orrialde
- **Biologia.** 131 orrialde
- **Geologia.** 1968. 93 orrialde.

Zerrenda honetako lan gehienekopia bana **Euskaltzaindian** dago. *Elhuyar*-en ere bai beste bana.

Bibliografia

- **Escritores euskéricos.** Juan San Martin. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo 1968 114 orrialdea.
- **Literatura Vasca.** Auñamendi. IV.alea. 103 orrialdea.
- **Gillen Larrañaga Azpiazu, S.J.(1905-1978).** Jon Goikoetxea Maiza. Euskera XXIII (2.aldia) 1978-1. Bilbo. 185-186 orrialdea.
- **"Andima Ibiñagabeitia saria"** eman zeneko hitzaldia. Euskera XVI. 1971. Bilbo.
- **Euskal literatura (V).** S. Onaindia. Etor. Bilbo 1977. 325-327 orrialdeak.
- **Bibliografia.** Jon Bilbao. IV.alea. Auñamendi. 103 orrialdea.

Bide luzea da *Gillermo Larrañagak* urratua. Liburu ugari utzi digu, kalitateaz gehiegi arduratu ez bazen ere. Guk, egia esan, liburu hauetan erabilitako terminologia tekniko osoa jasoa dugu beste askorenarekin batera ordenadorez osatu tako geure 53.000 hitzeko bilduman. *Mikel Zalbidetik* aurkeztu zuen hiztegi hau **Euskaltzaindian** 1979.eko Martxoaren 30ean eta "*Euskera*" aldizkarian (XXIV.alea; 2.aldia; 1979-I. Bilbo) berri zehatzagorik aurki daiteke. Dena dela, *Euskera* aldizkarian erantsi zaion "**Arkitektur hiztegia**"k ez du zenikusirik *Mikel Zalbidetik* aurkezturikoarekin, batera ematen badira ere. Arkitektur hiztegiak erakuntzako materialen zerrenda bakarrik dakar eta Arkitektur batzordeak buruta da.

Ez da txantxetakoa izan *Gillermo*-k eskaini digun liburu-sorta, eta besteak beste, gure textu-liburuak egiterakoan *Elhuyar*-en baliagarri gertatu zaigu hark urratutako bidea. Jarraitzaile ugari izan dezala.